

IKERKUNTZA. Animalien babeserako elkarteek kritikatu egin dute akordioa, epela dela-eta



EGUNKARIA

Animaliak erruz erabiltzen dira laborategietan; argazkian, aldaketa genetiko baten ondorioz fluoreszente bihurtutako arratoia.

EBn animaliekin probatutako produktu kosmetikoak galaraztea hitzartu dute

Probak egiteko era alternatiboak badaude, jada debekatu nahi dira, eta, bestela, 2009. urterako

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Produktu kosmetikoak probatzeko animaliekin egiten diren testak galarazteko akordioa hitzartu zuten atzo Europako Legebiltzarrak eta Europako Batzordeak. Alternatibaren bat izan arren, oraindik ere animaliekin probatzen diren produktuak zuzendaritzak onartu eta segituan debekatu beharko dira. Era berean, atzeritik inportatutakoak ere atzera botako dira. Soilik egun inolako alternatibarik ez duten produktuak onartuko dira, baina zuzendaritzak onartu eta ondorengo sei urteetan baino ez—oker handirik ez bada 2009an izango da hori—. Ordurako alternatibak aurkitu beharko dituzte botika konpainiek, eta animaliak erabiltzeari guztiz laga beharko diote.

Produktu kosmetikoak —eskuetako kremak, ezpainak pintatzeko barrak, perfumeak...—probatzeko animaliekin testak egitea oso ohikoa da. Kosmetikoak erabiliko dituzten pertsonentzat nahi gabeko ondorioak saihestu nahi dira era horretan.

Esate baterako, azalean azkurarik ez dutela eragiten

DATUA

Hamar urtean 30.000 produktu kimiko berri

Botika konpainien jarduna etengabea da, jo eta su dihardute. Datozen hamar urteetan 30.000 produktu kimiko berri sortuko dituztela uste dute, eta horiek probatzeko milioika animalia akabatuko direla. Gizon-emakumeen osasuna babesteko.

aztertzen da, eta batez ere minbizia izateko arriskua ez dutela handitzen. Batez ere produktuen toxikotasuna neurtzen dute ikertzaileek frog horiekin.

Jakina da egun zenbait proba saiodietan egin daitezkeela,

animaliarik erabili gabe. Baina hainbat botika konpainiak animaliak erabiltzen dituzte oraindik ere. Atzo Europako Batasuneko agintariek azaldu zuten, hitzartu duten akordioarekin horri egin nahi zaio aurre.

KEXUAK

Haserre daude animalien eskubideen babesleak

Europako Batasuneko agintariek hitzartu duten akordioa, animalien eskubideen babeserako elkarteek aburuz, oro har, epelegia da. Erresuma Batuko Animaliekiko Krudeltasunaren Prebentziorako Errege Elkartetik (RSPCA), esaterako, haserre mintzatu ziren. «Txarretik gehiago du onetik baino», azaldu zuen elkartearen ordezkari Marlou Heinenek akordioari buruz. Animaliekin egiten diren zenbait test krudel ez direla galarazten esan dute, eta luzamenduei esker 2013a arte legezkota izan daitezkeela.

Nolanahi ere, oraindik ez da indarrean dagoen araua. Horretarako Europako Batasuneko estatuen eta Europako Legebiltzarraren oniritzia lortu behar du aurrea. Nolanahi ere, guztia nahikoa aurreratuta dagoela dirudi, eta, EBko iturriek atzo azaldu zuten, datorren urtean sartuko da indarrean.

Indarrean dauden hainbat araudi

Era horretako araudiak ez dira berriak Europan. Erresuma Batuk, Alemaniak, Holandak eta Austriak ez dituzte onartzen animaliekin probatutako kosmetikoak. Nolanahi ere, atzerrietatik heltzen zaizkienei ez diete aterik ixten.

Europako Kontseiluaren ize-nean atzo Danimarkako Ingurumen ministro Hans Christian Schmidt baikor azaldu zen lortu akordioarekin. «Animaliekin egiten diren testak desagertzeko oso garrantzitsua da». Hitzarturikoa «arrakastatzat» jo zuten legebiltzarreko ordezkariak ere. Zenbait estatuk, ordea, akordioak Europako Merkataritza Erakundean (MME) eragozpenak aurki ditzakeela esan zuten. Kezkati.

OSASUNA

Zimbawen azkar hedatzen ari da kolera, batez ere gose direnen artean

Efe | **GENEVA**

Zimbaweko Masvingo probintzian kolera 500 lagun inguru erasan ditu iragan hilabatean, eta horietatik 24 hil egin dira. Gaitza asko heda daitekeela eta, kezka azaldu zuten atzo Genevan Nazioarteko Gurutze Gorriko ordezkariak. Zimbawen, oro har, gosetea arazo larria dela gogoratu zuten, eta eritasuna bizkor hedatzen dela ahul dauden pertsonen artean.

«Jendea oso ahul dago, ia jatekorik ez du, eta edozein iturritako ura edaten du», azaldu zuen Gurutze Gorriko ordezkari Ben Mountfieldek, kezkatuta. Izan ere, herrialde behartsuetan arazo larria izan daiteke kolera. *Vibrium comma* baziloak eragiten du. Kolera kutsatutako ura edo elikagaien bidez hartzen da normalean eritasuna.

INGURUMENA

Sute handiek berotegi efektuan ondorioak dituztela frogatu dute

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Ikertzaile talde batek *Nature* aldizkarian ikerketa plazaratu du, sute handiek berotegi efektuan ondorioak dituztela frogatuz. Orain bost urte Asia ekialdean —batez ere Sumatran eta Borneon— jazo tako sute batzuek eragindako ondorioak aztertzen jardun dute, eta horretan oinarrituta plazaratu dute beren ondorioa.

Azaldu dutenez, sute horien ondorioz 2,6 miloi tona karbono iritsi ziren atmosferara, eta klima aldaketan eragin zuzena izan zuten. «Suteak, ugarriak badira, klimaren epeltzean ondorioak izan ditzaketen mehatxu bihurtu daitezke», ondorioztatu dute. Berotegi efektua eragiten duten gas kutsakorrek murrizteko suteak zorrotz kontrolatzea ere ezinbestekoa dela esan dute.